

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AZPEITIKO UDALA**

*Gizarte-bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko norbanakoei eta familiei emango zaizkien udal-laguntzetarako 2021ko deialdia eta hura arautuko duten oinarriak. (BDNS kodea: 547392).*

2019-2023 legegintzaldian Azpeitiko Udalak izango duen lan-ildoetako bat ekonomia-krisiak norbanakoei eta familiei sortutako beharrei aurrea hartu eta erantzutea izango da.

Norbanakoen bazterkeria egoerak nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeria egoerak arintzeko, eta herritarren gizarte-eskubi-deak benetan baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomikorik ez dutenen gizarteratzea errazteko, Azpeitiko Udalak norbanakoentzako zein familientzako udal diru-laguntza sistema bat arautu eta zabaldu nahi du.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6. artikuluan adierazten da herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea dela Gizarte Zerbitzuen Euskal sistemaren helburua, beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan eta koordinatuta, eta funtsezko helburuak hauek direla:

- a) Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunak eragindako beharrian pertsonalak eta familiakoak prebenitzea eta horiei erantzutea.
- b) Babesgabetasun-egoerek eragindako premiei aurrea hartzea eta erantzutea.
- c) Bazterkeria-egoerei aurrea hartzea eta erantzutea, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- d) Larrialdi-egoerek eragindako beharrian pertsonalei eta familiakoei aurrea hartzea eta erantzutea.

Hori dela eta, abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 16. artikulua esaten du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikotzat hartzen direla gizarte-larrialdiko, gizarte-premiazko edo babesgabetasuneko egoerek eragindako ondorio ekonomikoak estaltzera edo leuntzera zuzendutakoak.

«Larrialdirako laguntza» kontzeptuaren funtsa, hain zuzen ere, une jakin batean (denbora-epa) eta norberaren borondateaz besteko edo aparteko arrazoiak eraginda sortutako baliabide ekonomikorik gabeko edo gutxioko egoera artatzeko premia larria da.

Beraz, ezusteko gertaera batek edo aldizkako prestazio ekonomikoen ondoriozko baliabide ekonomiko urriek sortutako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzean datza. Udalak norbanakoei eta familiei emango dizkien diru-laguntzak premiazko gabezia eta gabetasunak biltzen dituzten egoerak saihesteko baliabide aringarri modura erabiliko dira.

Udalaren diru-laguntza bat emateak gizarte-diagnostiko baten oinarritua egon behar du, hau da, larrialdi izaera duen premia-egoera ziurtatzen duen preskripzio tekniko batean, eta berriz baliabide ekonomikoen gabeziak eragindako gizarte bazterketako egoeren prebentzio gisa hartuko da.

Horregatik guztiagatik, beraz, honako erabaki honen bidez gizarte-bazterte eta/edo behar egoera larrian dauden egoerak

**AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA**

*Bases reguladoras y convocatoria 2021 para la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad. (Código BDNS: 547392).*

Uno de los ejes de trabajo del Ayuntamiento de Azpeitia en la legislatura 2019-2023, radica en prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por la situación de crisis económica.

Con el fin de paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, y facilitar la inclusión de quienes carezcan de recursos personales, sociales o económicos suficientes para el ejercicio efectivo de los derechos sociales de los ciudadanos, el Ayuntamiento de Azpeitia pretende normativizar y ampliar un sistema de ayudas económicas individuales y familiares municipales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, señala en el artículo 6 que la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales es promover, en cooperación y coordinación con otros sistemas y políticas públicas, el bienestar social del conjunto de la población, siendo los objetivos esenciales:

- a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de la dependencia.
- b) Prevenir y atender las necesidades originadas por las situaciones de desprotección.
- c) Prevenir y atender las situaciones de exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y de los grupos.
- d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

Por ello, el artículo 16 de dicha Ley 12/2008, de 5 de diciembre, dice que se consideran prestaciones económicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales las dirigidas a cubrir o paliar las consecuencias económicas de las situaciones de emergencia o urgencia social y desprotección.

La clave del concepto de ayuda de emergencia es precisamente la necesidad perentoria y urgente de atender una situación de carencia o estrechez de recursos económicos que se produce en un momento dado (plazo temporal), motivada por causas ajenas o sobrevenidas.

Se trata pues de cubrir situaciones económicas de emergencia provocadas por un acontecimiento inesperado y por la escasez de recursos económicos provenientes de prestaciones económicas de carácter periódico. Las ayudas económicas individuales y familiares municipales se utilizarán como un recurso paliativo que evita situaciones que pueden conllevar a privaciones y carencias de primera necesidad.

La concesión de una ayuda económica municipal debe de estar basada en un diagnóstico social, en una prescripción técnica que avala la situación de necesidad con carácter de emergencia y considerada como preventiva de situaciones de exclusión social sobrevenidas por la escasez de recursos económicos.

Por ello, mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para la

leuntzeko norbanakoentzako eta familientzako laguntzak emateko diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak onartzen dira.

Laguntza hau Udalaren 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan sartzen da. Plan hori 2020ko maiatzaren 28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen. Deialdi honek honako hauei erantzuten die: apirilaren 7ko 2/2016 Legea, udal-eskumenari buruzkoa, 17. artikuluko 13. puntua, gizarte-zerbitzuak antolatzeari, planifikatzeari eta kudeatzeari buruzkoa; 14. puntua, diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari buruzko antolamendua, programazioa eta kudeaketa; eta 85/2018 Dekretua, ekainaren 5ekoa. Larrialdietarako laguntzei buruzko dekretuaren bigarren aldaketa.

Horiek horrela, legeak aitortzen dizkion eskumenen baitan, Alkatetzak 2021eko urtarrilaren 29an emandako Ebazpenaren bidez,

#### ERABAKI DU

*Aurrena.* Gizarte mailako baztertzeko eta/edo behar-egoera larriko egoerak leuntzeko norbanakoei eta familiei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea.

*Bigarrena.* Diru-laguntza horietarako 2021ko deialdia onartzea (erabaki honen 1. eranskin modura doa).

*Hirugarrena.* 2021ko deialdiari aurre egiteko, ehun eta berogeita hamabi mila euro (152.000 €) baimentzea, Azpeitiko Udalaren, aurrekontuko kontu sail hauen kontura:

1.0.600. 480.231.00.03 – 152.000 €.

Aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da diru-laguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzeko.

*Laugarrena.* Deialdia argitaratzeko beharrezko dokumentazioa emango zaio BDNSari. Hitzarmen honen bidez onartutako oinarri arautzaileek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsora aurkezteko interesdunek Donostian dauden Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeo hautazko errekurtsora aurkezteko Alkatetzaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkezteari utzi gabe.

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Azpeitia, 2021eko urtarrilaren 29a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (649)

*Gizarte mailako bazterkeria eta/edo behar larriko egoerak leuntzeko norbanakoei eta familiei diru-laguntzak ematea arautuko duten oinarriak.*

#### 1. Xedea.

Oinarri hauen xedea da Azpeitiko udalerrian bizi diren norbanakoei eta familiei emango zaizkien diru-laguntzak ematea arautzea.

concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad.

La presente ayuda se integra en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022 del Ayuntamiento publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 28 de mayo de 2020. Esta convocatoria responde a la ley 2/2016, de 7 de abril de competencia municipal del artículo 17 punto 13) de ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales, y al punto 14) Ordenación, programación y gestión en materia de garantía de ingresos e inclusión social, y al decreto 85/2018 de 5 e junio de segunda modificación del decreto de Ayudas de emergencia social.

En consecuencia, de conformidad con las competencias que la ley le otorga, por Resolución de Alcaldía de 29 de enero de 2021

#### RESUELVE

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras para la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria 2021 de las citadas subvenciones, que se acompaña al presente acuerdo como anexo 1.

*Tercero.* Para hacer frente a la convocatoria del año 2021, autorizar un gasto por importe de ciento cincuenta y dos mil euros (152.000 €), con cargo a la siguiente partida presupuestaria del Ayuntamiento de Azpeitia:

1.0.600. 480.231.00.03 – 152.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Se facilitará a la BDNS la documentación necesaria para la publicación de la convocatoria. Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el siguiente día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

Azpeitia, a 29 de enero de 2021.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (649)

*Bases reguladoras para la concesión de ayudas económicas individuales y familiares municipales para paliar situaciones de exclusión social y/o extrema necesidad.*

#### 1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de ayudas económicas individuales y familiares a los residentes en el municipio de Azpeitia.

Zehatz esanda, diru-laguntza hauen helburua da larrialdi-egoerek Azpeitian bizi diren familiei sortutako beharrei aurrea hartzea eta erantzutea.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko diru-laguntzak emango dira.

Udalak emandako diru-laguntzek honako ezaugarriak izango dituzte:

a) Helburu jakin eta zehatz baterako dira; beraz, helburu horretarako baino ezingo dira erabili.

b) Laguntza horiek izaera subsidiarioa dute, eta, hala badagokio, indarrean den legerian aurreikusten diren eta onuradunak edo haren bizikidetzak-unitateko edozein kidek nahiz, hala badagokio, etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuek jaso ditzaketen eduki ekonomikoko edozein motatako gizarte-baliabide eta -prestazioren osagarri izango dira.

c) Laguntzak ezin dira eskuz aldatu, eta, beraz, ezin izango dira:

1. Obligazioen berme gisa eskaini.
2. Laguntza horien besteri pasatu, ez osorik, ezta zati batean ere.
3. Konpentsatu edo deskontatu, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik.
4. Atxiki edo bahitu, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

d) Diru-laguntza izaera izango dute, eta horiek ematea Azpeitiko Udalaren udal aurrekontuetan xede horietarako kreditu jarria egoteari egongo dira baldintzatuak.

Emakida-araubidea «zuzeneko emakida» da, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Beraz, ez dira norgehiagokari eta laguntzen publikitateari buruzko arauen mende egongo, oinarri arautzaile hauen publikitatea alde batera utzi gabe.

e) Gizarteratzera eta/edo autonomia bultzatzera bideratuak daudenez, bakarka zein familia mailan hainbat jarduera egiteko konpromisoa egiteari lotuak egongo dira. Besteak beste, honako jarduerak zehaztuko dira:

a.— Adikzioen menpekotasunetik ateratzeko programa terapeutiko batean parte hartzea.

b.— Familiako esku-hartze programak.

c.— Esku-hartze psikosozialeko programak.

d.— Formazio programak.

e.— Dagokion teknikariak pertsona horiek gizarteratzeko ego-ki irizitako edozein programa.

## 2. *Pertsona edo familia onuradunak.*

1. Oinarri hauetan araututako laguntzak jasotzeko norbako edo familia onuradun izaera izango dute Azpeitian bizi diren pertsona eta familiek, beti ere Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren (2012ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 101. zenbakia) 5. artikuluan zehaztua datorren onuradun izaera lortzea eragotziko duten inguruabarretakoren batean sartuak ez baldin badaude.

Familiatzat hartuko da «kide bat baino gehiagok osatutako pertsona-multzoa, etxe-bizitza berean bizi dena, odolkidetasunezko loturak izan ala ez, bizibide ekonomiko eta sozial bateratuak, eta elkartzen eta lotzen dituzten afektu-sentimenduak dituen».

En concreto, la finalidad de estas subvenciones es la de prevenir y atender las necesidades de las familias residentes en Azpeitia, originadas por la situación de emergencia.

Para ello se otorgarán recursos económicos de carácter no periódico.

Las ayudas económicas municipales deben de tener las siguientes características:

a) Tendrán carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto para el que hayan sido concebidas.

b) Tendrán carácter subsidiario y, en su caso, complementario de todo tipo de recursos y prestaciones de contenido económico que pudieran corresponder a la persona beneficiaria a cualquiera de los miembros de su unidad de convivencia, así como, en su caso, a otras personas residentes en la misma vivienda o alojamiento.

c) Serán intransferibles, y, por tanto no podrán:

1. Ofrecerse en garantía de obligaciones.
2. Ser objeto de cesión total o parcial.
3. Ser objeto de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas.
4. Ser objeto de retención o embargo, salvo en los supuestos y con los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

d) Tendrán naturaleza subvencional, quedando su concesión sujeta a la existencia de crédito consignado para esa finalidad en los Presupuestos Municipales del Ayuntamiento de Azpeitia.

Su régimen de concesión es el de «concesión directa», de conformidad con lo establecido en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003 General de Subvenciones. No se consideran sometidas, por tanto, a normas sobre concurrencia competitiva y publicidad de las ayudas, sin perjuicio de la publicidad de las presentes bases reguladoras.

e) En tanto que son destinadas para facilitar la integración y/o la autonomía, estarán sujetas a la realización de un compromiso de actuaciones a nivel individual o familiar donde se fijarán, entre otras, actuaciones tales como:

a.— Tomar parte en un programa terapéutico de deshabitación de adicciones.

b.— Programa de intervención familiar.

c.— Programa de intervención psicosocial.

d.— Programa de formación.

e.— Cualquiera que estime el técnico correspondiente para su inserción social.

## 2. *Personas y familias beneficiarias.*

1. Tendrán la consideración de personas y familias beneficiarias de las ayudas reguladas en las presentes bases las personas y familias residentes en Azpeitia, en quienes no concurra ninguna de las circunstancias impeditivas de alcanzar la condición de beneficiaria de las previstas en el artículo 5.º de la Ordenanza Reguladora de la Concesión de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa N.º 101, de 29 de mayo de 2012).

Se considera familia «al núcleo de personas formadas por más de un miembro y que conviven bajo el mismo techo, con vínculos consanguíneos o no, con un modo de existencia económico y social comunes con sentimientos afectivos que los unen y aglutinan».

3. *Norbanako eta familia onura-dunek bete beharreko baldintzak.*

Honako baldintzak beteko dituzten pertsona eta familiak eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak:

1. Pertsonak eta familiak gizarte-larrialdietarako laguntzei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete behar dituzte, jarduera autonomoaren kasuan diru-sarrerak zenbatzeko izan ezik.

Aurrekontu osoaren % 50 erreserbatu ahal izango da pertsona eta familia onuradunen diru-sarrera ekonomikoengatik eskaeren ondoriozko gastuak estaltzeko, baldin eta pertsona eta familia horiek Covid-19ren ondorioz gutxitu edo baliogabetu badira, edo ezohiko izaera izateagatik Gizarte Zerbitzuen Batzorde Teknikoak premiazotzat jotzen dituen eskabideak estaltzeko.

2. Autonomoen kasuan, laguntza eskatu aurreko hileko diru-sarrerak kontabilizatuko dira, baita laguntza eskatzen den aldiko diru-sarrerak ere.

3. Betekizunetatik salbuestea.

Diru-laguntza horien izaera kontuan hartuta, eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, onuradunak betekizun hauek beteketik salbuesten dira.

– Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharra edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

4. *Diru-laguntzen kontzeptuak eta zenbatekoak.*

Diru-laguntzen kontzeptu eta zenbatekoak II. eranskinean jasotzen dira.

1. Etxebizitzarako prestazio osagarria, Eusko Jaurlaritzarena, gizarte-larrialdietarako laguntzena edo etxebizitzaren alokairuarena, hipotekarena, baterako errentamenduarena, azpierreantamenduarena jasotzen duten familiak edo pertsonak ezin izango dute etxebizitzaren mantentze-lanen kontzeptuaren onuradun izan. 65 urtetik gorako pertsonak, pentsiodunak eta % 50eko edo hortik gorako minusbalioetasuna duten pertsonak izan ezik, edo familia-unitateko bi kidek baino gehiagok % 33ko minusbalioetasuna badute. Hala ere, kolektibo horiek ezin izango dute lan-jarduera ekonomikorik egin, gizarteratzeko eta laneratzeko zentro bat izan ezik.

Kasu horietan, honako igoera hau izango dute jaso beharreko zenbatekoek, ezarritako gehienekoen gainean.

Kontzeptua	Urteko zenbatekoa
Etxebizitza alokatzea	1.800 €
Etxebizitza kreditua	1.800 €
Energia	900 €
Mantentze-lanak	900 €

2. Urteko gehieneko muga:

Diru-sarrerak +DBE +ELO+GLL.

4/2011 Dekretuaren 1. artikuluan jasotzen denez, unitatearen diru-sarreraren baturak –DBE, ELO, eta GLL barne– ezingo du ezein kasutan titularraren ezaugarri berak dituen bizikidetzan unitate baterako legokiokeen DBE modalitatearen gehieneko zenbatekoaren % 200 gainditu.

5. *Eskaera kopuruaren muga.*

1. Ez da mugatuko familia edo pertsona bakoitzak egin ahal izango duen eskari kopurua.

2. Halaber, familia-unitate edo pertsona bakoitzak diru-laguntza bat baino gehiago eskatu ahal izango du.

3. *Requisitos de las personas y familias beneficiarias.*

Podrán solicitar subvenciones las personas y familias que reúnan los siguientes requisitos:

1. Las personas y familias deberán reunir los requisitos señalados en la normativa vigente relativa a las Ayudas de Emergencia Social, a excepción del cómputo de ingresos en caso de actividad autónoma.

Podrán reservarse un 50 % del presupuesto total para cubrir los gastos que tengan como causa las solicitudes por ingresos económicos de las personas y familias beneficiarias que se hayan visto aminorados y/o anulados por motivo del Covid-19, o las solicitudes que por su carácter extraordinario sean valoradas como urgentes por la Comisión Técnica de Servicios Sociales.

2. En el caso de personas autónomas se contabilizarán los ingresos del mes anterior a la solicitud de la ayuda, así como los ingresos del período para el que se solicita la ayuda.

3. Exención de requisitos.

Teniendo en cuenta la naturaleza de estas subvenciones y conforme a lo previsto en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de subvenciones, se exime a las personas beneficiarias de la necesidad de cumplimiento de los siguientes requisitos:

– Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

4. *Conceptos y cuantías objeto de las ayudas económicas.*

Los conceptos y cuantías objeto de las ayudas económicas se recogen en el anexo II.

1. Las familias o personas receptoras de la Prestación de complemento de vivienda, del Gobierno Vasco, Ayudas de emergencia social, o Ayudas municipales de los conceptos de alquiler de vivienda, hipoteca, co-arriendo, subarriendo, no podrán ser beneficiarias del concepto de mantenimiento de vivienda. A excepción de las personas titulares de la prestación económica personas mayores de 65 años, personas pensionistas, y personas con minusvalía igual o mayor de 50 %, o cuando más de dos miembros de la unidad familiar tengan una minusvalía superior a un 33 %. No obstante, estos colectivos no podrán realizar una actividad económica laboral, a excepción de que se trate de un centro de inserción socio-laboral.

En estos casos los importes de la cuantías a percibir sobre los máximos establecidos tendrán el siguiente incremento.

Concepto	Cuantía anual
Alquiler vivienda	1.800 €
Crédito vivienda	1.800 €
Energía	900 €
Mantenimiento	900 €

2. Límite máximo anual ingresos:

Ingresos+RGI +PCV+AES.

Tal y como se recoge en el artículo 1 del Decreto 4/2011, la suma de los ingresos de la unidad –incluida la RGI, la LGS y las AES– En ningún caso ha superado el 200 % de la cuantía máxima de la modalidad de RGI que le podría corresponder para una unidad de convivencia de las mismas características que la titular.

5. *Limitación del número de solicitudes.*

1. No se limita el número máximo de solicitudes por cada familia o persona.

2. Por su parte, una misma unidad familiar, o persona podrá solicitar más de una ayuda económica.



#### 6. Diru-laguntzen eskaerak aurkezteko modua eta epea.

1. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoa erabiliz aurkeztu ahal izango dira, Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoa bitartez ([www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus)), tramite atarian sartuz -diru-laguntzak- eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez.

Deialdiaren informazioa «Diru laguntza-programa» atalean izango da erakusgarri.

2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa Udalaren Gizarte Zerbitzuak sailean aurkeztu ahal izango dira zuzenean -Plaza Nagusia, 5-2. solairua-. Kasu honetan eskaria egiteko erabiliko den inprimakia Gizarte Zerbitzuetako sailean emango da.

3. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

4. Pertsona eskatzaileak ez dago beharturik Azpeitiko Udalarari aurrez eman diren dokumentuak aurkezttera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen arburuzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

Aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko behar adina dokumentu eta informazio eska ditzake Gizarte Zerbitzuko Departamentuak.

#### 7. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.

Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatu-takoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohar-taraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako Legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran.

#### 8. Laguntza emateko prozedura.

Laguntza emateko prozedurari Gizarte Zerbitzuetako sailean aurkeztutako eskaerarekin ekingo zaio, eta sail horrek emango dio sarrera, eta dagokion administrazio-espeditentari hasiera emango.

Emakida-arabidea «zuzeneko emakida» da, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Beraz, ez dira norgehiagokari eta laguntzen publikitateari buruzko arauen mende egongo, oinarri arautzaile hauen publikitatea alde batera utzi gabe.

#### 9. Balorazio irizpideak.

Balorazio ekonomikorako irizpideen atalak honako hauek aipatzen ditu:

– 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko, baliabide-maila eta garapen-araudia zehazteko II. kapituluak 3. atalari.

– Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen urtarilaren 18ko 4/2011 Dekretuari, zehazki, araubide ekonomikoren II. kapituluari, zenbatekoa eta baliabideak zehazteari buruzko 8. artikuluari eta urtero onartzen den Aginduaren urteko gehieneko zenbatekoei buruzko 9. artikuluari.

Eskaerak baloratzeko irizpideak honako hauek izango dira:

#### 6. Forma y plazo de presentación de las solicitudes de ayudas.

1. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, podrán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Azpeitia ([www.azpeitia.eus](http://www.azpeitia.eus)), accediendo al portal de trámites -ayudas económicas- y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos.

La información de la convocatoria estará disponible en el «Programa de subvenciones» del Ayuntamiento de Azpeitia.

2. La solicitud junto con el resto de la documentación podrá presentarse en persona en el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento, Plaza Nagusia, 5-2.º piso. En este caso, el formulario específico para realizar la solicitud, se facilitará en el departamento de Servicios Sociales.

3. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4. La persona solicitante no estará obligada a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente al Ayuntamiento de Azpeitia. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir al solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

El departamento de Servicios Sociales podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

#### 7. Subsanción y documentación complementaria.

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

#### 8. Procedimiento de concesión.

El procedimiento de concesión se iniciará con la solicitud presentada en el Departamento de Servicios Sociales, el cual se encargará de darle entrada y crear el correspondiente expediente administrativo.

Su régimen de concesión es el de «concesión directa», de conformidad con lo establecido en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003 General de Subvenciones. No se consideran sometidas, por tanto, a normas sobre concurrencia competitiva y publicidad de las ayudas, sin perjuicio de la publicidad de las presentes bases reguladoras.

#### 9. Criterios de valoración.

El apartado de criterios de valoración económica hace referencia a:

– La Ley 18/2008 de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, a la sección 3, capítulo II, de determinación de nivel de recursos y normativa de desarrollo.

– Al Decreto 4/2011 de 18 de enero, por el que se regulan las Ayudas de Emergencia Social, en concreto al capítulo II de régimen económico, artículo 8 de determinación de cuantía y de recursos, y artículo 9 que refiere a las cuantías anuales máximas de la Orden que se apruebe anualmente.

Los criterios de valoración de las solicitudes serán los siguientes:

a) Baremo ekonomikoa.

Udal diru-laguntzak emateko erabiliko den baremo ekonomikoa Eusko Jaurlaritzak ekitaldi horretarako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak emateko erabiliko duena bera izango da. Urtero onartzen den Aginduan jasotakoa.

Hala ere, autonomoen egoera ekonomikoari dagokionez, bai eta Covid-19ren ondorioz pertsona eta familia onuradunen diru-sarrerak murriztu eta/edo baliogabetu diren kasuetan ere, honako salbuespen hau egingo da:

– Egoera ekonomikoa kontabilizatzeko, kontuan hartuko dira azken hilabeteko diru-sarrerak, pertsona autonomoaren laguntza eskatzen den aldiko diru-sarrerak eta familia-unitateko gainerako kideen azken hiru hilabeteetako diru-sarrerak, betiere besteren kontura badira.

IV. eranskina. Pertsona autonomoaren diru-sarrerak aitorzeko eredia.

b) Egoera sozio-familiarra.

Dagokion teknikariak aztertuko du gaia, eta diagnosia, balorazioa eta gizarte-ebaluazioa egingo ditu, txostena osatuko du eta dagokion proposamena egingo. Horretarako adierazle hauek izango ditu kontuan: familia, etxebizitza, osasuna, ekonomikoa, lanekoa, eskolakoa, osasunekoa eta gizartekoa.

10. Finantzazioa.

1. Balegokio emango diren diru-laguntzak deialdi horri dagokion urteko Azpeitiko Udalaren Aurrekontu Orokorretatik finantzatu dira. Deialdian zehaztu egingo da diru-laguntza horiek aurrekontuko zein kreditutatik ordainduko diren.

2. Oinarri hauen xede diren diru-laguntzak xede bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatuk emandakoak izan, hala Estatuak, nola Europako Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak izan, betiere ez bada dagokion jarduketaren kostua gaintzen, eta horren inguruan beste diru-laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezake-tenaren kalterik gabe.

3. Oinarri hauek araututako diru-laguntzen zenbatekoak ezingo du gaintu, inolaz ere, laguntza hori bakarka hartuta edota bestelako edozein administrazio publiko edo erakunde publikoren nahiz pribatuen diru-laguntza edota bestelako laguntzekin bateratua, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua.

11. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.

1. Laguntza hauek emateko prozeduraren instrukzioa Gizarte Zerbitzuak Departamentuaren talde teknikoari dagokio. Hauen ofizios egingo dituzte egoki iruditzen zaizkien jarduera oro ebazpen proposamena emateko behar diren datuak zehazteko, ezagutze ko eta egiaztatze.

2. Kasu bakoitza bere gain hartu duen Gizarte Zerbitzuetako saileko teknikariak egingo du dagokion txostena, nahitaezkoa eta ez loteslea izango dena.

3. Txosten hori Gizarte Zerbitzuen Batzorde Teknikoak ebaluatuko du, eta Gizarte Zerbitzuen Saileko arduradun teknikoak espedientearen ebazpena proposatuko du.

4. Ebazpen-proposamenaren berri emango zaio interesdunari, egin duen eskaerari emandako erantzuna ez bada aldekoa. Interesdunak hamar eguneko epea izango du egoki irizitako alegazioak aurkezteko.

Egindako laguntza-eskariari emandako erantzuna aldekoa baldin bada, zuzenean ebatziko da, eta horren berri emango zaio interesdunari, behar bezala jasoa gera dadin Udalak erabakiko duen modua erabiliz.

a) Baremo económico.

El baremo económico de concesión de las Ayudas económicas municipales será el mismo que el Gobierno Vasco establece para las Ayudas de Emergencia Social para cada ejercicio en la correspondiente Orden que se aprueba anualmente.

No obstante en relación a la situación económica de las personas autónomas así como en aquellos supuestos que con motivo del Covid-19 los ingresos económicos de las personas y familias beneficiarias se hayan visto aminorados y /o anulados, se realizará la siguiente salvedad:

– Se contabilizará la situación económica teniendo en cuenta los ingresos del último mes así como los ingresos del período para el que se solicita la ayuda de la persona autónoma y de los tres últimos meses del resto de miembros de la unidad familiar siempre y cuando sean por cuenta ajena.

Anexo IV. Modelo de declaración de ingresos de la persona autónoma.

b) Situación socio-familiar.

El personal técnico correspondiente estudiará, hará el diagnóstico, valoración, evaluación social, y realizará el informe y propuesta correspondiente. Para ello tendrá en cuenta los indicadores de familia, vivienda, salud, económica, laboral, escolar, salud, social.

10. Financiación.

1. Las ayudas económicas que, en su caso, puedan otorgarse, se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Azpeitia del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las ayudas económicas.

2. Las ayudas económicas objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no rebase el costo de la tipología de la ayuda solicitada, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con subvenciones o ayudas de otras administraciones públicas, o de otros entes públicos o privados, supere el coste de las ayudas económicas solicitadas.

11. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.

1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas ayudas corresponderá al equipo técnico del Departamento de Servicios Sociales, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estimen necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

2. La realización del informe correspondiente que tendrá carácter preceptivo y no vinculante será a cargo del técnico del departamento de Servicios Sociales responsable de la intervención del caso.

3. Este informe será evaluado por la comisión técnica de Servicios Sociales, y la responsable técnico del Departamento de Servicios Sociales, propondrá la resolución del expediente.

4. Se dará traslado de la propuesta de resolución al interesado en caso que no sea satisfactoria su petición, dándole un plazo de audiencia de diez días.

En caso que la propuesta sea afirmativa a la solicitud de ayuda realizada se resolverá directamente y se dará traslado de la misma al interesado en la forma que acuerde el Ayuntamiento para su constancia.

## 12. Ebazpena.

1. Tramitazioa amaitzen denean, Udalak prozedura ebatzi-ko du, oinarrietan zehaztua datorren arabera arrazoitutako ebazpenaren bidez.

2. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Organo emaileak Udalaren web orrian emandako laguntzen estraktu argitaratuko du, kasu bakoitzean.

3. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea HIRU hilabete-koa izango da, eskaria egiten den egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean ebazpenik emango ez balitz, aurkeztutako eskaria ezetsi egin dela esan nahiko du.

4. Ebazpenean zehaztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa. Ordaintzeko modua izango da diru-laguntza hori ordaintzeko zehaztuko den banku-kontuan sartzea.

## 13. Norbanako eta familia onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

1. Onuradunak 10 eguneko epea izango du, jakinarazpenaren datatik aurrera, diru-laguntza onartzeko. Kontrakoa berariaz jakinarazten ez bada, tazituki onartutzat joko da.

2. Norbanako eta familia onuradunen aldetik diru-laguntzak onartzeak esan nahi du izaera orokorrekina Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzailean (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2012ko maiatzaren 29koa, 101. zk.) zehaztuak datozen betebeharrak beteko direla.

3. Justifikazioa egiteko, familia onuradunek 6. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 6-7 puntua izan ezik.

Edonola ere, onuradunak:

1. Jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko du, baldin eta laguntza edo diru-laguntza hori emateko ezarriak dauden baldintzak betetzen ez baditu, edo gauzatu duen jardueraren kostua baino handiagoa bada jaso duen diru-laguntza.

2. Espedientea izapidetzen ari den departamenduak, Udalaren kontu-hartzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudunen batek eska-tutako informazioa emateko betebeharra du.

3. Hartu dituen laguntzak, horiek emateko zehaztutako helburuetarako erabili beharko ditu.

4. Legozkiokeen eduki ekonomikoko eskubide edo prestazio guztiak gauzatea, hala eskaria egin aurrekoak, nola laguntzak jasotzeko epealdian.

5. Azpeitiko Udal Patronatuak euskararen erabilera normalizatzeko antolatzen dituen sustapen-programetan parte hartzea.

6. Arauz zehaztuko den epean, prestazioak eskuratzea ekarriko luketen betebeharrak betetzeari dagokionez sortutako gertaeren berri eman beharko du. Astebeteko epean jakinarazi beharko du pertsona onuradunaren ohiko bizilekuaren helbideari dagokionez sor daitekeen edozein aldaketa.

## 14. Diru-laguntzen ordainketa.

Onartutako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

1. Diru-laguntzaren helburua bete dela justifikatzen denean ordainduko da diru-laguntza hori.

Dena dela, diru-laguntza emateko hitzarmen edo ebazpenean onartu ahal izango da egjatzatze hori egin aurretik egitea ordainketak, diru-laguntzaren helburu den ekimenak berekin lekartzakeen jarduerak burutu ahal izateko.

## 12. Resolución.

1. Una vez finalizada la tramitación, la Alcaldía resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases.

2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará individualmente a cada solicitante. El órgano concedente publicará en la página web un extracto de las subvenciones concedidas.

3. El plazo máximo para resolver y notificar será de TRES meses desde el día en que se realice la solicitud. La falta de resolución en el plazo indicado supondrá la desestimación de la solicitud presentada.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención. La forma de pago será a través de la correspondiente cuenta bancaria de abono.

## 13. Obligaciones y compromisos de las personas y familias beneficiarias.

1. La persona beneficiaria dispondrá de un plazo de 10 días, a partir de la fecha de la notificación, para su aceptación, que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario.

2. La aceptación de la ayuda económica por parte de las personas y familias beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 101, de 29 de mayo de 2012).

3. A efectos de justificación, las familias beneficiarias deberán cumplir con las obligaciones generales establecidas en el artículo 6 a excepción del punto 6-7 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia.

En todo caso, el beneficiario tendrá:

1. La obligación de reintegrar la ayuda en caso de incumplimiento de las condiciones establecidas para la concesión de la ayuda o subvención, o del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

2. La obligación de facilitar cuanta información le sea requerida por el Departamento que tramita el expediente, la Intervención del Ayuntamiento, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos competentes.

3. Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubieran otorgado.

4. Hacer valer todo derecho o prestación de contenido económico que le pudiera corresponder, tanto de carácter previo a la solicitud como durante el período de percepción de las ayudas.

5. Participar en programas de promoción para la normalización del uso del Euskara que se convocan por el Patronato municipal de Azpeitia.

6. Comunicar, en el plazo que se establezca reglamentariamente, los hechos sobrevenidos en relación con el cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso a las prestaciones. Comunicar en el plazo de una semana, cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona beneficiaria.

## 14. Pago de las subvenciones.

Las ayudas económicas concedidas serán abonadas del modo siguiente:

1. El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.

No obstante, en el convenio o resolución de la concesión de la ayuda podrá aprobarse la realización de pagos anticipados con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

2. Oinarri hauen bidez arautu nahi diren diru-laguntzak justifikatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, oro har:

a) Fakturak edota merkatuko trafiko juridikoan froga balio bera duten antzeko dokumentuak, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazio, haren zenbateko, jaulkipen-data eta ordainketa-datarekin.

b) Alokairu-ordainketak dagokion banku-sarreraren dokumentuarekin egiaztatu beharko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jaso diren beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatza, haien zenbatekoarekin eta jatorriarekin.

d) Manutentzio-gastuen kasuan, teknikariak prestazio horren beharra bermatzen duen txosten bat aurkeztuko du.

3. Diru-laguntza justifikatzeko ezarri-tako epea igaro egi ten bada oinarri honetan adierazitako agiriak aurkeztu gabe, horretarako eskumena duen organoak eskatzaileari eskatuko dio agiri horiek aurkez ditzala 10 eguneko epean. Epe hori betetzen denean ez baditu eskatutako agiri horiek aurkeztu, 17. klausulak aurreikusiak dauden ondorioak sortuko dira.

4. Eskatzaileak 4 urtean gorde beharko ditu diruz lagundu den jarduera burutzeak sortu dizkion gastuen egiazta-giriak, bai eta jasotako diru-laguntza zer-nola erabili den diotenak ere. Aipatutako epe hori adierazitako justifikazioa aurkezteko ezarria dagoen epealdia amaitzen denetik hasiko da zenbatzen.

5. Oinarri honetan zehaztutako agiriak aurkeztutakoan, Gizarke Zerbitzuek dagokion egiaztatzea egingo dute. Egiaztatze horren ondorioz ondorioztatuko balitz aurrekontu zenbagarriaren kostu justifikatua eman zaion diru-laguntza baino txikiagoa izan dela, edota ez direla bete, osorik edo zati batean, ekimena justifikatzeko zehaztutako baldintzak, edota hura emateko jarri ziren helburuak, egoera horren berri emango zaio erakunde interesatuari, egindako egiaztapenarekin batera, eta 17. klausulak aurreikusia dagoen prozedurari ekingo zaio.

#### 15. Ebazpenaren aldaketa.

1. Laguntza ematen duen organoak emate-ebazpena ofizioz alda dezake, aurrez interesatuari entzunaldia eskainita eta funtsak aplikatu aurretik, diru-laguntzak ematerakoan kontuan izandako baldintza teknikoaren aldaketak lortu nahi den interes publikoko helburua lortzea eragozten edo zailtzen badu, eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

2. Dagozkion diru-laguntzak emateko prozedura amaitu ondoren laguntza horiei uko egiteak gertatzen badira onuradunen artean, soberan geratuko den diru-kopuru hori banatu egin ahal izango da aldeko kalifikazioa lortu arren, zegoen aurrekontua jada agortuta zegoelako, kanpoan geratutakoaren artean. Horrelakoetan, diru horiek eskari berriei emango zaizkie.

#### 16. Diru-laguntzak itzultzea.

1. Onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta ezargarri diren gainerako araudietan zehaztutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, diru-laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat emango zaio, eta diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza-interesak itzuli beharko ditu, Azpeitiko Udalaren Diru-laguntzak emateko udal ordenantzaren 16. eta 17. artikuluetan xedatutakoaren arabera (2012ko maiatzaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 101. zk.).

2. Proporzionaltasun irizpideak era-biliko dira ez-betetze horiek mailakatzeko, eta egindako jardueren eta prozesu guztia- ren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatu beharko dira.

2. La justificación de las subvenciones objeto de las presentes bases contendrá con carácter general, la siguiente documentación:

a) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago.

b) Los pagos de alquiler deberán demostrarse con el documento de ingreso bancario correspondiente.

c) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

d) Para el caso de los gastos de manutención el /la técnico acompañara un informe avalando la necesidad de dicha prestación.

3. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere esta base, el órgano competente requerirá al solicitante para que en el plazo de 10 días aporte la misma. La falta de presentación de la justificación, transcurrido este nuevo plazo, tendrá los efectos previstos en la cláusula 17.<sup>a</sup>

4. La persona solicitante está obligada a conservar, durante un plazo de 4 años, los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la ayuda, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación.

5. Una vez presentada la documentación señalada en esta base, se realizará por parte del departamento de Servicios Sociales la correspondiente comprobación. Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste justificado del presupuesto computable ha sido inferior a la subvención abonada o que se han incumplido, total o parcialmente, los requisitos establecidos para la justificación o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la entidad interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se iniciará el procedimiento previsto en la cláusula 17.<sup>a</sup>

#### 15. Modificación de la resolución.

